- En cuanto a las razones que justifican la medida, la ley pasa de referirse a “vida personal, familiar y laboral” a referirse únicamente a la “vida familiar y laboral”, excluyendo, por tanto, las razones basadas en la vida personal de las personas trabajadoras.
- La redacción anterior del art. 34 se refería a la adaptación de la jornada para conciliar “en los términos que se establezcan en la negociación colectiva o en el acuerdo a que llegue con el empresario”, por lo que si los convenios colectivos no regulaban la materia la regulación quedaba, en la práctica, vacía de contenido. Ahora se regula el “derecho a solicitar” la adaptación, por lo que en ausencia de negociación colectiva que pacte las condiciones del ejercicio del derecho, la empresa que reciba una solicitud deberá abrir con el/la solicitante un período de negociación de un máximo de 30 días.
- El derecho se configura en relación con “la adaptación de la duración y distribución de la jornada de trabajo, en la ordenación del tiempo de trabajo y en la forma de prestación, incluida la prestación de su trabajo a distancia”. Estarían comprendidas, por tanto, tanto las reducciones en la jornada como las modificaciones en su régimen (turnos, jornadas irregulares...) como el teletrabajo. En cualquier caso, por parte de la persona trabajadora debe acreditarse que la adaptación solicitada es necesaria para conciliar, además de razonable y proporcionada en relación con sus necesidades, puestas en relación con las necesidades organizativas y productivas de la empresa.
- Finalizada la negociación, la empresa responderá por escrito a la solicitud, debiendo acogerse en la misma a alguna de las siguientes alternativas: aceptar la solicitud, plantear una propuesta alternativa o manifestar su negativa. En estos dos últimos casos, la propuesta alternativa o la negativa deben pasar por la ponderación de las necesidades organizativas y productivas de la empresa. Y, a los efectos de tal ponderación, debe tenerse presente que la adaptación legal forma parte del derecho fundamental a la igualdad efectiva entre mujeres y hombres.
- La resolución de discrepancias entre la empresa y la persona trabajadoras se resolverán por el cauce del art. 139 de la ley procesal laboral (Derechos de conciliación de la vida personal, familiar y laboral reconocidos legal o convencionalmente), debiendo interponerse la pertinente demanda en el plazo de 20 días desde la negativa o propuesta alternativa de la empresa. La sentencia no admitirá recurso salvo que se acumule una reclamación de daños superior a 300 euros.

# Urkullurekin, gero eta pobreagoak

Pobrezian bizi diren lagunen kopurua nabarmen handitu da azken hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoan

## > Landeia

ELAk makina bat aldiz ohartarazi du gurean pobrezia igotzen ari dela, gero eta lagun gehiago beharrian larriak dituztela eta dauden gizarte laguntzak urriak izateaz gain ez dutela balio pobreziatik ihes egiteko.

Eusko Jaurlaritzak berriki argitaratu duen ikerketa batek hau guztia berresten du. Txostena modu nahasian idatzia dago, irakurketa eta ulergarritasuna zailduz. Errealitate gordin hau ezkutatu nahi dutela dirudi. Edukiei erreparatuta, datu eta estatistiketan oinarritzen da. Pobrezia eragiten duten arrazoi, ondorio eta emaitzen inguruan, berriz, ezer gutxi esaten du. Argi dago, beraz, zuritutako inkesta baten aurrean gaudela, pobrezia benetako egoera ezkutatzeko asmoarekin egin dena.

Eusko Jaurlaritzaren errealitatea ezkutatzeko saiaterik da, baina badira begi-bistakoak diren hainbat datu:

- **Pobrezia arriskua, ongizaterik eza, pobrezia larria eta horren larritasuna neurtzen duen Sen indizea areagotu egin dira.** 2018an 172.307 pertsona ziren pobrezian larria. Kontutan eduki behar da 2008an, krisi ekonomikoaren hastapenetan, 121.875 lagun zeudela pobrezia egoeran, egun baina %48 gutxiago. Baina, 2016ko datuekin alderatuta ere, dagoeneko ekonomiaren hazkunde bete-betean pobrezia %6,1 igo da, urte horretan 151.112 lagun baitzeuden pobrezian.
- **Gero eta pertsona gehiagok dituzte zailtasunak ohiko eginbeharrei eta gastuei aurre**

**egiteko:** 2008tik 2018ra bikoiztu egin dira oinarritzko gastuei aurre egin ezin dieten etxetan bizi diren pertsonak, 66.241tik 121.659ra. Alokairuak, kredituak, hipotekak eta fakturak ordaindu ezin dituzten edo atzerapenez ordaintzen dituzten kopurua ere gero eta handiagoa da. Neguan etxea tenperatura egokian edukitzeko arazoak dituzten pertsonen datua oso kezagarria da, pobrezia energetikoa errealitatea da.

- **Pobrezia larriagotu egin da zenbait kolektibotan:** Seme-alabak dituzten familiak (guraso bakarreko familiak, eta, batez ere, etxean erreferentziazko pertsona emakumea duten familiak), lan egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako pertsonak bizi diren etxean, atzeritarrak eta



jada langile pobre esaten zaienak dira pobrezia-tasa altuenak dituztenak. Baina, lana izatea ere ez da ezeren bermea kasu askotan: 100 pobreetatik %15,4, pertsona aktibo guztiak landun egonkorak diren familietako kidea da.

- **Gizarte-prestazioen sistema ez da nahikoa eta ez die erantzuten biztanleen beharriazanei:** pobrezia-arriskuan dauden pertsonen %66,4ak ez du jasotzen arreta egokirik emango dion prestaziorik; horrek berak berresten du sistemaren eskasia. Zenbatekoak ez dira nahikoa, eta prestazioak eskuratzeko baldintzak murriztaileak dira. Gaur egun sistemak ez die erantzuten biztanleen egiatzko beharriazanei. ■



## ¿Por qué crece la pobreza?

**Mikel Noval**, responsable de política social, analiza en siete tuits por qué crece la pobreza en la CAPV

1. **La pobreza crece en la CAPV.** Ese aumento –en 2008 **121.875** personas y en 2018 **172.307**– se está dando también en años de fuerte crecimiento económico en los que ha aumentado el empleo.
2. **Otro dato:** el 39% de las personas en situación de pobreza vive en familias en las que hay personas con empleo.
3. **El sistema de prestaciones sociales no da respuesta** a la situación de pobreza. Una de cada 3 personas en situación de pobreza se queda sin prestación. Otra sigue en situación de pobreza. Tan solo una de cada 3 sale de la pobreza al ser atendido por el sistema.
4. **El Gobierno de Urkullu y sus acólitos** (entre ellos los medios públicos) **ocultan esta realidad.** El Gobierno tenía que haber publicado la Encuesta de Pobreza en el primer trimestre de 2019, pero lo hizo en agosto, tras las elecciones de abril y mayo. Burda manipulación.
5. **Las causas del aumento de la pobreza:** los recortes de los derechos laborales, la extensión de la precariedad laboral con el apoyo institucional, los regalos fiscales a las rentas altas y al capital (como acaba de ocurrir en Bizkaia), los recortes de las prestaciones sociales...
6. **El Gobierno Vasco actúa con una gran hipocresía:** dice que las personas son los primero, pero es responsable del aumento de la pobreza y, además, pretende aplicar nuevos recortes de las prestaciones sociales. Es urgente cambiar radicalmente las políticas que se aplican.
7. **Para conseguir este cambio es fundamental la pedagogía,** rechazar las políticas neoliberales, proponer alternativas claras y movilizar. Si no se hace esto, la izquierda social y política renuncia al cambio.

# Estatutu berezidun kolektibitateeruntz Batera

Irailaren 21ean Batera plataformak foro bat antolatu zuen Ipar Euskal Herriko Institutioaren geroari buruz hausnartzeko



## > Xabier Harlouxet

2017an Ipar Euskal Herriarendako lehen instituzioaren lorpena eta gero, Baterak jarraitzen du bere herritar zaintza lana. Urte hasieran aurkeztu zituen Ipar Euskal Herriko gobernantzari buruzko herritar ikuskaritzaren ondorioak. Hainbat gomendio eginak izan ziren Ipar Euskal Herriko hautetsientzat Euskal Hirigunearen ibilmolde demokratikoaren hobetzeko, bai eta ere hiritarrek eta tokiko hautetsiek bertan beren tokia aurki dezaten. Ikuskaritza horren kariatara, hainbat puntu agerian emanak izan ziren balizko legegile bilakaerei buruz. Ber maneran, hobekuntza bidean aurkitzeko, Estatuko beste gune batzutan egiten denari kasu egitea azpimarratzen da. Honetaz aritzeko irailean foro bat antolatu zuen.

Lehen mahai inguruan *nortasunaren* eta *lurraldetasunaren* arteko loturak aipatu ziren. Ipar Euskal Herriaren kasuan, instituzioaren perimetroak ez du sekulan eztabaidarik sortu. Euskal Hirigunearen aurkakoek berek defendatzen zuten beste egitura instituzional bat ber perimetroan.

Menperaezin bakar batzuk proposatzen zuten lurraldearen beste mugaketa bat. Soziologo batek eta politologo batek ikertu dute lurraldearen eta nortasunaren arteko lotura, paralelo bat eginez instituzioen zilegitasunarekin. Euskal Hirigunearen perimetroa zalantzan ezarri gabe, galdera honek ahalbidetzen du ber maneran lurraldeen eta herrien tokia aipatzea neurri handiko herri elkargo honetan. Haien artean antolatzea hiri eta baserri gunea, lurraldean diren kultur ezberdinak elkarrekin jokatzeko, Ipar Euskal Herrian osagarriak diren jardun ezberdinetarik probetxu ateratzea... Hainbat galdera tratatzeko Institutioaren lurralde mailako errotzea indartzeko eta instituzioa ahal den neurrian konektatzeko lurraldeko herriei eta ondorioz biztanleei.

**Batera organizó el 21 de septiembre un foro para debatir sobre la el proceso de Institucionalización de Ipar Euskal Herria**

Bigarren fase batean, lurraldea hunkitzen duten galdeetan berezituak diren ACADIE aholkularitza bulegoko adituak berriz etorri ziren auzapezaren rolaekin eta instituzioaren bilakaera ezberdinei buruz. Erran behar da ez ginuelarik egitura instituzionalik, estatutu berezidun lurralde kolektibitate bat aldarrikatzen ginuela eta horrek Pirinio-Atlantiko departamendua ordezkatzen zuela. Zailtasuna da berriz asmatu behar dugula gaurko instituzioa hura bera bilaka dadin estatutu berezidun lurralde kolektibitate bat. Orain dela laster 3 urte, Herriko Etxeetan jadanik martxan ziren eskumen batzuren komunean ezartzeko desmarxa batek du Euskal Hirigune Elkargoaren sortzea ahalbidetu. Ariketa departamenduaren ordezkatzea baino zailagoa da, baina federatzaileagoa da ere.

Adituek azpimarratu zuten instituzionalizazio prozesuaren eredugarritasuna. Urrunago aitzinatzeko bideak aintzak dira. Alabainan, zombait hilabeteren buruan, frantses gobernuak nahi du desberdintze eskubidea frantses konstituzioan gehitu. Beste molde batez erraiteko legegileek nahi dute zombait lurraldeei parada eman eskumen berezi batzuren gauzatzeko edo lurraldearen errealitateari egokitua den gobernantza baten antolatzeko.

Horregatik Baterak dei bat luzatzen du Ipar Euskal Herriko legebiltzar kideei denak elkarlan bat has dezaten Parisen aurrean boz batez hitz egiteko eta proposamen indar bat izaitzeko estatutu berezidun lurralde kolektibitateeruntz doan bidean urrunago joaiteko. ■



# Trebakuntzarik gabe, sistemari aurre egin nola?

Fundazioaren web orrialdeak eskaintzen diren trebakuntza guztien katalogoa jasotzen du

## > MRA Fundazioa

Unibertso osoan, inon halakorik bada, pentsamendua da bere existentzia ukatu ezin zaion gauza bakarra. Ukatzea bera pentsatzea da. Sindikatuan ez dugu pentsamenduaren garrantzia ukatzen, eta ezagutza botere-tresna bat denaren ebidentziatik erabaki zen 1991an Prestakuntza Arloko Fundazioa sortzea: Manu Robles-Arangiz fundazioa.

Plastilinazko altzariak, kartoizko asteburu pasak edo maitale berziklagarriak. Denetariko katalogoak daude. Eta guk ere badugu gurea, merke-merke eta polito-polito, prestakuntzaren katalogoa! Tatxan. Ez, ez dugu prestakuntza edo ezagutza merkatuaren logikatik ulertzen. Ezagutza da kodigo penalaren 416. artikulua trantzean dagoen langileari azaltzea, pankartan okertu-gabeko lerroak egiteko gaitasuna izatea, edo amorruari gorputzean bide egitea. Etengabe sortzen eta kolektibizatzen dugu ezagutza, baina sindikatu batean gaude, eta errutinak jan baino lehen, gure lana zertarako den erabakitzeko balio digu prestakuntzak.

Hiru gai-arlo jorratzen dira prestakuntzan.

### 1. Prestakuntza politikoa, sindikala eta ideologikoa:

sei hilabete daramatzanari edo lehenengoz atetik *ocheintaicuatro* edo *ochentaicinco*-an, noiz sartu zen zalantza duenari ELA zer den galdetuko bagenio, erantzunak derrigor behar luke desberdina (ta ezer ez da berdin!). Baina, ba al daukagu egungo azterketa organizazionala, soziala eta politikoa egiteko tresnak? ELAren historian, zertzuk eta zeintzuk ahaztu ditugu? Prentsaurrekoetan hainbestetan aipatzen dugun *neoliberalismoak*, zer du hitzaren bestaldean?

**2. Arlo juridiko teknikoa:** lan-mundua eremu oso arautua da, eta arauak ukazioaren berdindu ohi ditugu. Ordea, arauak elkarbizitzarako markoa posible egiten dute: semaforoekiko anarkak baginen, gaur gutxiagok irakurriko lukete orri hau, eta araurik ez bagenu, alkar ulertu be'ez, ez ginen mintzatü ahal. Ezarrita ditugun arauak ez dira guk eginak, baina beharrezkoa da horien berri izatea hauetan eragin eta eraldatzeko: kontziliazioa, ABLEak, langileen ordezkarien bermea...

sindikatu partaideen bitartez formakuntza desberdinak jasotzeko aukera dago.

### 3. Antolakuntza prestakuntza:

ni-a eta gu-a. Nitik abiatu, nigan bakarrik gera ez dadin. Gure trebezia pertsonalak eta taldekoak hobetu nahi ditugu lan sindikala garatzeko: ezin delako tonu berdinean hitz egin koadrilako afarian eta azalpen bat ematerakoan; bileretan hitza orekatu behar delako bukaerako puntuak korrika-eta-presaka-eta-gaizki-eta-aguragur buka ez daitezen; kideei bakardade momentuak eskatzen jakin behar dugulako, "gaur, niretzako nago".

Katalogo eskuragarri duzue Fundazioaren web orrian edo ondorengo loturan: <https://labur.eus/uX4Gn> eta ikastaroak eskariaren arabera emango dira. Taldetxo bat elkartuta, gure eskuragarritasuna izango duzue. Interesa non, Fundazioa han. Ez, ez dugu motxila horirik eramango. Kritikotasuna elkarrekin zorroztea da gure helburu, geroz eta gehiago dakigula dirudien garai honetan, ezagutza erabiltzeko ahalmena fintzea, galderak egitea eta isilik gelditzea. \_\_\_\_\_ . Tatxan. ■



# Krisi ekologikoa klima aldaketa baina askoz sakonagoa da

Global Climate Strike ekimenak agerian utzi zuen sistema hau ez dela bateragarria planetaren biziraupenarekin

## > Landeia

Irailaren 20tik 27ra *Global Climate Strike* ekimenak klima aldaketaren aurkako mobilizazioak deitu zituen. Deialdi honen baitan ELAk eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak formazio jardunaldia antolatu zuten Bilbon. Bi izan ziren jardunaldian hitz egin zuten gonbidatuak: Pablo Cotarelo eta Walter Actis. Eurekin ELAko ingurumen saileko bi ordezkari egon ziren: Ainhara Plazaola eta Janire Landaluze.

**Pablo Cotarelok** energiaren eta ingurugiroaren inguruan hitz egitearen garrantziaz mintzatu zen. "Energia gizartearentzat eta odola gorputzarentzat parekideak dira. Gizartea oso merkeak eta moldagarriak izan diren energia batzuetara lotuta egon da: ikatza eta petrolioia. Kontua da energia horiek oso zikinak izateaz eta kutsatzeaz gain agortzen ari direla. Beraz, argi dago trantsizio energetiko bat behar dugula". Nola egin trantsizio hori? Horretaz hausnartu zuen Cotarelok. "Energiaren sektorearen inguruko kontrol publikoa behar

dugu. Horretarako guztionak diren baliabide komunen inguruko kontrol demokratikoa ezinbestekoa da. Egungo energia eredutik eredu jasangarri baterako trantsizioa egiteko baliabide asko behar dira, eta baliabide ekonomiko horien inguruko kontrol publikoa ere funtsezkoa da. Izan ere, trantsizio honen finantziazioaren inguruko kontrola behar dugu".

Cotarelok aipatu zuen energiaren inguruko enpresa handiak jakitun direla trantsizio hau egitearen beharraz, begi-bistakoa baita egungo sistemaren oinarriak diren energia iturriak agortzen ari direla. "Enpresa hauen helburua euren negozio eredu mantentzea da. Berdin zaie planeta suntsitzen jarraitzea, nahi duten bakarra da euren irabaziak mantentzea".

## **Klima aldaketatik harantzago**

Walter Actisek klima aldaketaren aurka borrokatzearen garrantzia azpimarratu zuen bere parte hartzean, baina oso argi utzita hori ez dela nahikoa. "Krisi ekologikoa klima

aldaketa baina askoz sakonagoa da. Trantsizio energetikoa behar-beharrezkoa da klima aldaketari aurre egiteko, baina ez da nahikoa. Biodibertsitatea galtzen ari gara, milaka espezia desagertzen ari dira. Betiko adibidea da, baina funtsezkoa: zer gertatuko zen erleak desagertzen badira? Nork polinizatuko du? Honek elikadura-kate guztian ondorio larriak izango litzuke. Akuiferoak sikatzen ari dira. Lurra ere agortzen ari da..."

Egoera honen aurrean Actisek argi du zein den arazoaren muina. "Kapitalismoa etengabeko hazkundera oinarritzen den sistema bat da, eta hori bateraezina da planeta honen muga fisikoekin. Etorkizunean baliabide gutxiagorekin bizi beharko dugu, hori argi dago. Agian hemen ezin izango ditugu Ameriketatik datozen elikagaiak jan, ezin izango direlako garraiatu. Edo, agian, bidai-merkeak desagertu egingo dira. Kontua da nola antolatzen garen. Hori dago gakoa. Eta behetik ez badugu hau antolatzen, goitik inposatuko digute. Eta ziur egon askoz okerragoa izango dela". ■

# Salda badago!

Los días 1, 2 y 3 de noviembre se celebrarán las V. Jornadas Feministas de Euskal Herria en Durango

Azaroaren 1, 2 eta 3an Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak egingo dira Durangon; 2.500 partaidetik gora eman dute bertan parte hartzeko izena

*Somos la revolución que hemos cocinado a fuego lento durante mucho tiempo, somos caldo. Con infinidad de ingredientes y miles de sabores. No hay una única receta. Somos plurales, diversas, tan viejas como jóvenes, de allí y de acá, las que vienen, las que se van; y sabemos que entremezcladas somos más fuertes. Conocidas y desconocidas, todas bienvenidas, hasta que taza a taza rebose el puchero. Ahí se encuentran el calor, la revolución, la lucha conjunta. Cada época ha tenido sus necesidades, sus prioridades, su sal y pimienta. De hecho, llevamos entre fogones también desde tiempo atrás para esto que nos ha tocado.*

*Somos movimiento, estamos organizadas, estamos en el caldo. Sabemos lo que es hervir de ira, y también sanarnos mutuamente con caldo caliente. Sabemos deleitar a las cercanas, pero también escaldar al agresor. Tras acabar con el machismo, fascismo, racismo, capitalismo, lesbofobia, transfobia... ¡caldo para todas!*

*Hay caldo porque tenemos la materia prima. Porque somos movimiento, porque venimos a crear vidas vivibles, porque somos revolución, porque nos plantamos ante las violencias y opresiones. Somos feminismo y estamos en el movimiento feminista, y sí, tenemos qué tomar. Hace tiempo que está borboteando y rebosará en noviembre.*


*Así pues, ¡trae la tuya y brinda porque hay caldo para todas! (\*)*

## > Landeia

Durango acogerá bajo el lema *Salda badago!* del 1 al 3 de noviembre las V. Jornadas Feministas de Euskal Herria. En total más de 2.500 mujeres de toda Euskal Herria se han apuntado para participar en estas jornadas en las que el movimiento feminista debatirá las principales líneas estratégicas de cara al futuro.

ELA participará activamente en estas jornadas. Son muchas las militantes de este sindicato que se han apuntado para participar en las diversas actividades programadas. Además, el 1 de noviembre ELA impulsará un taller donde, con

motivo de la presentación del libro *No eran trabajadoras, solo mujeres*, escrito por **Onintza Iurreta** sobre el conflicto de las Residencias de Bizkaia, se analizará la realidad de las mujeres en sectores precarios. (De 13:00 a 14:30 en el Instituto Fray Juan de Zumarraga). Para ello se podrán escuchar de primera mano el testimonio de mujeres que actualmente están luchando contra la precariedad en diversos sectores, como las Residencias de Gipuzkoa o la limpieza. Una magnífica ocasión para la reflexión teórica colectiva, el conocimiento mutuo de grupos feministas y tejer redes. ¡Nos vemos en Durango! ■





ELA destinó en 2018 parte de las cantidades retenidas a la plantilla por la huelga del 8 de Marzo a la puesta en marcha del Centro de Formación Profesional Samou, en Palestina. El Centro abrió sus puertas en abril para apoyar la capacitación en sastrería, diseño de moda, bordado y artesanía de mujeres que sufren especialmente la falta de oportunidades de empleo

# Palestinarekin sarea ehunduz

ELAk lagundu egin du Palestinan emakumeentzako Lanbide Heziketa prestakuntza zentro bat irekitzen

## > Eider Azcunaga

ELAk 2018an martxoaren 8ko greba zela eta bere langileei atxikitako zenbatekoaren zati bat Palestinako proiektu batera bideratu zuen: Samouko Lanbide Heziketako Zentroa. Langabeen sindikatu palestinarrak Hebron inguruan sortutako ikastetxeak emakumeei formazioa ematen die jostunak izateko, moda diseinua, bordatuak eta artisautzan trebatzeko.

Zisjordania hegoaldeko muturrean Lerro Berdera iritsi aurretik Samou da azken herria, eta israeldar kokapenez inguratuta dago. Herriko nekazaritza ia lur guztiak eta ura kendu dizkiete, bizimodua eragotziz. Honek eragin zuen biztanleen ogibide nagusia Israelen eta kokapenetan eskulana bilakatzea. Haatik, Bigarren Intifada zela eta Israelek mugak itxi izanak

eta lan-baimenak lortzeko aukera gogortu izanak ekarri du familia asko Samou eta antzeko komunitateetan enplegurik eta bizirauteko aukerarik gabe egotea.

Israelen politika errepresiboak eta Agintaritza Palestinarraren politika neoliberala komunitateak zeharo pobretzen ari dira. Gogora ekarri behar da lurralde palestinar okupatuak munduko langabezia tasarik handiena duela, eta emakume zein gazteek pairatzen dutela gehien enplegu eskasia hori.

## Horrelako zentro gehiago irekitzea helburu

Samou Lanbide Heziketa Zentroa 2019ko apirilean ireki zen enplegua aurkitzeko oztopo gehien topatzen duten emakumeak trebatzeko, esaterako alargunak, umezurtzak

eta dibortziatuak. Ikastetxeak espazioa, makinak, materialak eta prestakuntza programak eskaintzen ditu emakumeek aipatutako ofizioak ikas ditzaten, lana aurkitze aldera. Halaber, irakasten die prestakuntza amaitutakoan formatzaile izateko aukera izan dezaten.

Proiektu hau abiapuntu bat da komunitatearen bizitzan, baina hedatzeko potentzial handia du. Etorkizunean espero da ikastetxeak eskaintza beste kolektibo batzuei ere zabaltzea, komunitatean beharrezko diren beste ofizio eta lanbideak barne: kontularitza, sakeleko-telefonoen konponketa, proiektuen administrazioa, azuleiu eta elektrizitate lanak, etab. Aurrerago Palestinako beste herri batzuetan zentro gehiago irekitzeko asmoa dago, enplegu aukerak sortu eta langabeziari aurre egiteko. ■

# Euskararen Lege berria behar dugu

Nafarroako Auzitegi Nagusiak indargabetu egin du Administrazioan euskara arautzen zuen 103/2017 dekretua



## > Landeia

Nafarroako Gobernuak Euskara administrazioan arautzeko 103/2017 Foru Dekretua onartu zuen 2017an. Oso motza zela aitortuta ere, ELAK bere babesa eman zion, euskararen egoera larriak aurrerapausoak behar dituela sinetsita, hauek txikiak izan arren. Aurrera joateko aukerak probestu behar direla aldarrikatu zuen ELAK, eta urratsa txikia izan arren, dekretu horrek aurrera egiteko aukera ematen zuen.

Dekretuak aurkako erreakzio bortitzak izan zituen; horien artean UGT sindikatuarena. Epaitegietara jo zuten. Urriaren 2an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak dekretua partzialki indargabetzen duen ebazpena egin zuen publiko. Gauzak honela, hemendik aurrera, euskara ez da meritu gisa hartuko, besteak beste.

Urriaren 2ko epaiak agerian uzten du ezinbestekoa dela euskara eta euskaldunon eskubideak defendatzeko mobilizazioa eta ahalegin politiko eta pedagogikoa berpiztea. Hori egin dute historikoki Nafarroan euskararen aldeko eragile sindikal, politiko eta sozialek, eta hori da etorkizunean ere egin beharrekoa. Argi geratu da, beste behin, PSN eta

bere aliatu sindikalak –UGT, CCOO eta Afapna– betiko tokian daudela. Euren ustez euskara bigarren mailako hizkuntza da, zokoratu beharrekoa, ahal bada bakarrik famili-eremuan erabiltzeko; esparru publikoan, noski, inoiz ez. Ez dezagun ahaztu PSNko kargu nagusiak 2018an eskuin-muturrak euskararen aurka deitutako manifestaziora joan zirela, alai eta kementsu gainera.

## Euskararen Legea ordezkatu beharra dago

Gaur egun Nafarroan indarrean dagoen Euskara Legea 1986. urtekoa da. Aurreko legegintzaldian ELAK lege hori aldatzea proposatu zuen, zonifikazioa gaindituko duen lege batek bakarrik bermatu ditzakeelako euskaldunon eskubideak.

Helburu horrekin sindikatuko ordezkartza batek bere proposamena aurkeztu zuen Parlamentuan, 2018ko ekainean. Ordezkaritza politikoen ez zuten aintzat hartu ELAren proposamena, hauteskundeak gertu zirela edo gehiengo nahikorik ez zegoela argudiatuz. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren ebazpenak agerian utzi du hura zela bide eraginkor bakarra eta aukera paregabea galdu dela.

## Eta orain, zer?

ELAren ustez, Nafarroako Gobernuak helegitea jarri beharko luke. Zoritxarrez, ez dirudi hori denik Maria Chivitek (PSN) buru duen Gobernuaren jarrera. PSN, Geroa Bai, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra alderdiek sinatu zuten akordio programatikoa jaso zuten Euskararen Legea ez zela aldatuko. Kalera atera beharra dago. Horrela egin zen urriaren 19an Iruñeko karraketan, eta etorkizunean ere horrela egin beharko dugu. ■

Solo un nuevo texto con rango de ley foral que elimine la zonificación podrá garantizar los derechos de las personas vascoparlantes, algo que ahora es evidente pero que no bastó para que el cuatripartito (2015-2019) impulsara con convicción una nueva Ley del Euskara



### La plantilla de Novaltia, en huelga desde el 22 de julio en defensa del convenio

La plantilla de Novaltia, dedicada a la distribución de productos farmacéuticos, se encuentra en huelga indefinida desde el 22 de julio. A principios de año Novaltia decidió unilateralmente romper con la mesa de negociación del nuevo convenio para poder aplicar el convenio estatal, lo que supone una notable pérdida en las condiciones laborales de la plantilla. Por su parte, el objetivo de la plantilla es recuperar el convenio, eliminar las escalas salariales dobles, limitar la subcontratación, reducir la jornada y lograr un incremento salarial. La mayoría de la plantilla está siguiendo esta convocatoria de huelga, pese al intento de la dirección de minimizar su impacto mediante prácticas ilegales como el esquirolaje interno –personal que asume funciones de las y los huelguistas– como esquirolaje externo –traslado de personal de la planta de Zaragoza a Zamudio–. Prácticas ilegales que ELA ha puesto en conocimiento de la Inspección de Trabajo, que hasta ahora ha mirado a otra parte.



### Espainiak oinarrizko eskubideak urratuz egin nahi dio aurre gatazka politiko bati Katalunian

Espainiako Auzitegi Gorenak guztira 100 urtetako espetxe zigorra ezarri dizkie espetxean dauden Kataluniako buruzagi independentistek –13 eta 9 urte bitartekoak dira zigorrak 9 auzipetuentzat–. ELAk irmoki arbuiatzen du buruzagi politiko independentista katalanen aurka argitaratutako zigorra. ELAk argi dauka sententzia judicial batek ezingo duela inoiz konpondu gatazka hau, nazio auzia baita hau, bere aitortza eskatzen duen nazio baten gatazka politikoa, hain zuzen ere. Hori da Estatuak oinarrizko eskubideen urraketa sistematikoaren bidez aurre egitea erabaki duen auziaren muina. Horregatik, epai hau bada ere Euskal Herriaren aurkakoa, zentzatu nahi baititu soberaniaren aldeko alderdi, erakunde eta herri mugimenduetako liderrak.

### Falta de voluntad negociadora y transparencia en el nuevo modelo de OPE de Osakidetza

Osakidetza ha presentado en la mesa sectorial su nuevo modelo de OPE. En opinión de ELA, y a la vista de los planteamientos efectuados para futuros procesos, es evidente que Osakidetza no quiere poner fin al actual sistema corrupto de selección ni tampoco acabar con la precariedad laboral que constituye la base del mismo. ELA se reafirma en que el modelo de empleo de Osakidetza ha fracasado y es la consecuencia directa de de las decisiones y las políticas aplicadas en los últimos años. La foto del empleo en la sanidad pública vasca es la foto de la precariedad (40%). Si no se va al origen, cualquier medida que se pretenda introducir podrá ser vulnerada o manipulada en beneficio de unos pocos.

### Cinco nuevas jornadas de huelga en el sector de Artes Gráficas de Gipuzkoa

ELA, LAB y UGT han convocado cinco nuevas jornadas de huelga en el sector de Artes Gráficas de Gipuzkoa para los días 4, 5, 6, 7 y 8 de noviembre, ante la negativa de la patronal Adegia a negociar el convenio. Estos nuevos paros se suman a las ocho jornadas de huelga que han llevado a cabo durante este año los trabajadores y trabajadoras del sector, con un seguimiento del 70%.

Es evidente que Adegia no quiere negociar. Este comportamiento es una consecuencia más de la Nueva Cultura de Empresa que la patronal vasca pretende instaurar en las empresas de Gipuzkoa y cuyo objetivo no es otro que el de acabar con el trabajo colectivo, abaratar las condiciones laborales de las

y los trabajadores, y perpetuar la precariedad en las empresas.

En este contexto, ELA apela a las movilizaciones para obligar a Adegia a que se sienta a negociar un convenio acorde con el buen momento que viven ahora las empresas del sector de Arte Gráficas.

## Seguimiento masivo a los tres días de huelga en Sedena

La plantilla de Sedena, subcontrata responsable de la gestión de la mayoría de los centros culturales de Navarra, secundó de forma mayoritaria la huelga convocada los días 8, 9 y 10 de octubre. El objetivo de la plantilla es denunciar el progresivo deterioro de las condiciones de trabajo.

En concreto, el detonante de esta huelga ha sido la intención de la empresa de recortar jornadas y salarios del personal de limpieza de los Civivox entre un 5 y un 19%, después de haberse adjudicado a la baja recientemente este contrato en el ayuntamiento de Iruña.

ELA, sindicato mayoritario en el Comité de Empresa – 9 de 17– entiende que la huelga y la movilización es la única medida que queda ante la imposibilidad de llegar a ningún acuerdo con la empresa, y ante el progresivo deterioro de las condiciones de trabajo.



## Amplísimo seguimiento a la semana de huelga y movilización en el metal de Bizkaia

La inmensa mayoría –alrededor del 85%– de las y los trabajadores del metal de Bizkaia secundaron la semana de movilización convocada por los sindicatos con representación en el sector del 30 de septiembre al 4 de octubre. ELA denuncia que la patronal FVEM ha bloqueado durante dieciséis años el convenio y que, ahora, en un contexto de crecimiento económico y recuperación de empleo, se niega a incorporar en el convenio mejoras para regular la subrogación, limitar las ETTs o incrementar los salarios. En este contexto, conviene recordar que los más de 50.000 metalúrgicos llevan desde 2011 con las condiciones y salarios congelados y la patronal ha propuesto en la mesa de negociación subidas salariales insultantes.

## Movilizaciones en defensa del empleo en Araluze

La plantilla de Araluze de Igorre, dedicada al diseño, fabricación y puesta a punto de troqueles dentro del sector del automóvil, ha iniciado una serie de movilizaciones en defensa de sus puestos de trabajo y de la viabilidad de la empresa. En julio de 2016 el Grupo BATZ, integrada en Mondragón Corporación Cooperativa y dedicada en una de sus unidades de negocio a la misma actividad que Araluze, compró Araluze con la condición de que la plantilla asumiera bajadas salariales, aumento de jornada y recortes sociales. El Grupo Batz ofrecía la viabilidad al proyecto industrial de Araluze, mediante la integración dentro del Grupo BATZ. Además garantizaba la carga de trabajo. Ahora, el Grupo BATZ ha realizado un anuncio de disolución de Araluze que puede conllevar al cese total de actividad y 141 despidos.

## La plantilla de Emtesport convoca 11 jornadas de huelga en los polideportivos de Barakaldo por la mejora de sus condiciones laborales

El personal de la empresa Emtesport, que presta el servicio en la gestión deportiva de los polideportivos de Lasasarre y Gorostiza de Barakaldo, ha convocado 11 días de huelga para exigir la mejora de sus condiciones laborales. Los paros se realizarán entre los días 21 de octubre y el 9 de noviembre. Las movilizaciones comenzaron antes del verano, pero en agosto y septiembre la plantilla decidió paralizarlas con el fin de lograr una negociación tanto con la empresa como con el Ayuntamiento. Las gestiones realizadas con ambos han sido en vano. La empresa se niega a negociar y el Ayuntamiento, por medio del Instituto Municipal de Deportes no ha dado respuesta alguna.



# ESKERRIK ASKO KEN LOACH!

Los días 21, 22 y 23 de septiembre se celebró la I edición de Zaintzaldia en Donostia, el Festival de Cine de las Trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa. Durante estos tres días las grandes estrellas del cuidado de nuestros mayores –Bego, Ana, Sonia, Lourdes...– contaron en primera persona su historia, su película. Y lo hicieron ellas porque son las grandes protagonistas que trabajan todos los días bajo los focos de la precariedad que iluminan a miles de personas como ellas.

Sin embargo, Zaintzaldia no fue el único evento importante que había programado esos días en Donostia. Coincidiendo que el gran cineasta y activista social Ken Loach se encontraba en el Zinemaldia presentando su última película, *Sorry We Missed You*, donde, precisamente denuncia la precariedad laboral, el director visitó a estas trabajadoras.

Ken Loach pudo conocer de primera mano las reivindicaciones de estas trabajadoras que llevan más de 100 días de huelga, no solo en lucha por mejorar sus condiciones laborales, sino por mejorar un servicio público vital para nuestra sociedad. Dos días después de este encuentro, Ken Loach recibió el Premio del Público

Ciudad San Sebastián para la mejor película europea. No pudo asistir a recibir el premio, porque se encontraba fuera de Euskal Herria, pero dejó este hermoso texto para que se leyera. Eskerrik asko, Ken!

*¡Qué sorpresa y que alegría! Gracias al público por este espléndido premio, significa mucho para todos nosotros. Y gracias al Festival por habernos recibido con tanta generosidad. Espero que todos ustedes compartan nuestra indignación ante la forma en que se tratan a los trabajadores precarios, trabajadores vulnerables y explotados que ganan miserias.*

*En San Sebastian tuvimos la ocasión de conocer a unas mujeres muy valientes, mujeres que luchan. Cuidan de ancianos en Residencias, un trabajo duro y muy valioso.*

*Estas mujeres están en huelga para conseguir salarios que les permitan vivir dignamente, y más tiempo para cuidar como se merecen a las personas que las necesitan. Su lucha también es la nuestra. Necesitan nuestra ayuda. Les pido por favor que las apoyen, y apoyen también a su sindicato, ELA Euskal Sindikatua. Les deseo todo lo mejor. De parte de Paul, Rebeka, yo mismo y todos los que hicimos la película, gracias a todos. Eskerrik asko!*



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129